

Hiri Hezitzailearen Nazioarteko Eguna 2016

Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartearen Alkateen Manifestuaren proposamena

Argi eta garbi erakutsi nahi dugu garapen iraunkorraren helburuekin hartu dugun konpromisoa, eta, zehazki, gogoz ari gara lanean, bizitza osoan zehar eta guztiontzat kalitatezko hezkuntza inklusiboa bermatzeko, garapen pertsonal eta kolektiborako motor den heinean eta bidezkoagoak, solidarioagoak eta kulturartekoak izango diren hiriak lortzeko beharrezkoa den hiri-eraldaketaren eragile den neurrian. Guztiei erabateko berdintasunaz gozatzeko aukera emango dieten hiriak dira, eta, desberdintasunak oinarri hartuta, elkarrekin hitz egiteko eta elkarrekin bizitzeko gaitasuna izango da hiri horietan.

Gaur egun, argi eta garbi esan dezakegu hezkuntzak eskolako hormak zeharkatzen dituela eta hiri osora zabaltzen dela, auzoak, espazio publikoak eta erakundeak kutsatuz. Baina egiaztatuta dago objektiboki heziketaren kontrako hainbat eta hainbat fenomeno eta faktore ere badaudela oraindik hirietan.

Aurre egin behar diegun desafio eta erronka horiez jabetuta, konpromisoa hartu dugu, uste eta borondate sendoz, atzeranzko fenomeno horiek indargabetzeko, eta, horretarako, lehentasunen ardatzean pertsonak jartzen dituen eredu politiko bat proposatzen dugu, hezkuntza oinarri hartuta, gure ekintzari koherentzia, dinamismoa eta zentzua ematen dizkion eredu bat, gizartea eraldatzeko, kohesiorako eta elkarren arteko errespetua sustatzeko baliabide den neurrian.

Hiri hezitzaileok lanean ari gara tokiko politika guztien zeharkako ardatz izan dadin hezkuntza, horrek duen garrantziaz jabetuta eta hainbat arlotako jarduerak eta programek (osasun-arlokoak, inguruneak, hirigintzakoak, mugikortasunekoak, kulturakoak, kirolekoak...) heziketarako duten ahalmena sustatuz.

Lanean ari gara, beraz, hiriko ondasun guztietarako sarrera demokratizatzeko, hiriko espazio bakoitza heziketarako iturri izan dadin, eta pertsona bakoitza bere helburuak edo asmoak lortzeko hiriak eskaintzen dizkion aukerak ahalik eta gehien aprobetxatuz bizi dadin, goza dezan eta emantzipa dadin, gizalegez eta demokratikoki jokatzu betiere. Ingurumenarekin errespetuz jokatu duen hiri bat nahi dugu, inguruan dituen hiriekin eta landa-inguruneekin etengabe harremanetan egongo den hiri bat.

Partaidetzako demokrazia baten aldeko apustua egiten dugu, hiri hobeak, inor baztertzeko ez dutenak, eraikitze sozietate zibilaren proposamenak eta ahaleginak batuz. Helburu handi hori lortzeko, hiritarren heziketa sustatzeko konpromisoa hartu dugu, bai eta politika publikoak egiteko, abian jartzeko eta ebaluatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezartzeko ere, espiritu kritikoa duten hiritar aktibo, konprometituta eta erantzunkideen parte hartzea kontuan hartuta.

Kontinente guztietako askotariko hiriak elkarrekin egiten ari garen ibilbidea da honako hau; 25 urte baino gehiago ditu jada Hiri Hezitzaileen Gutuna aldarrikatu zen unean abian jarritako ibilbide horrek. Horregatik, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Eguna ospatu nahi dugu guk ere, egunetik egunera gero eta pertsona, elkarte, enpresa eta erakunde gehiagoren babesa lortu nahian, heziketa integral, berritzaile eta emantzipatzaile baten alde gogoz lan egiteko. Eta bazter guztietako hiriak, handi zein txikiak, gonbidatu nahi ditugu **Mundu hobe baterako Hiri Hezitzaileagoak** eraikitze apustu ausart eta itxaropentsu honekin bat egitera.

